

Ze barri?

1999
URTARRILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

27 zkia.

Urlatik Landetara

Sail berria estrenatuz:
Eskoriatzarrok munduan.

Elkarrizketa
Gaizka Kortazar

Ekitaldiak:
Ihaueriak, Inisumiso eguna
eta Santa Ageda mutilak

**Mugarriluzen,
Parke Eolikoa egiten
utziko dugu?**



**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
LAGUN-ARO ASEGUURUAK**

ALDETEC



-----**TASAZIOAK**
-----**PERITAZIOAK**
-----**PROIEKTU ING.**
-----**OBRA ZUZENDARITZAK**
-----**ERREFORMAK**


Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 943 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

Gastañadui, 7 - bajo
Tel.:908-774133 Tel.-Fax 715436 **20540** **ESKORIATZA**

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



BERALAN



- ◆ **Komunerako altzari eta manparak**
- ◆ **Ispiludun armairu aurrealdeak**
- ◆ **Beirate artistikoak**
- ◆ **Salarako mahaiak**

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☎ 943 79 81 78
ARETXABALETA



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

**AZKOAGA
ESTANKOA**

Zure Zerbitzura

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

EROSLE

**HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK**

Aranburuzabala, 3
Tfnoa: 943 714546



Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943- 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.



Industrias Olabarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 **ESKORIATZA** (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxa: 34-43 - 714061

E. MAZMELA


**HORTZ
KLINIKA**

Tel. 943 71 47 36



bedardenda

Tfnoa.: 943 714327
ESKORIATZA



Gastañadui, 15
Tfnoa.:

Ondo pasa San Pedrotan!.



Esko Sport

**Kirola eta sport moda
Leintz bailaran.**

Tel. 943 715296

**G
A
M
M
A**

**BETIRAKO DEPILAZIO ELEKTRIKOA
EEBB ko sendagile elkarreak onartutako
metodo bakarra
KONTSULTA DOHAIN**

Maalako Errebala 17° A ARRASATE
Tfnoa 943 795125

BENTA-MOTZ

Gastañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

COMPOSTELA

taberna

Berezitasuna:
Pulpoa gallego erara.
San Pedro,12

San Pedro jai zoriontsuak!

GAIZKA KORTAZAR Eskoriatzako mendi taldeko kidea

Zenbat denbora Mendi Talde barruan, Gaizka?

Bost urte, gutxi gora behera.

Noiz sortu zen mendi taldea?

Eskoriatzako K.E.an sortutako talderik zaharrenetako bat da, hasiera hasieratik dago martxan.

Zenbat federatu daude taldean?

Ihaz 96 pertsona federatu ziren gurekin. Aurten irekita dago izen emateko epea, eta dagoeneko 65 pertsonak eman du izena.

Ze lan betetzen du Mendi Taldeak?

Federatu Karneta ateratzeko gestioak bideratzen ditugu, eta hortaz aparte, gazte eta nagusientzako mendi irteerak, eski irteerak, diapositiba proiektzioak eta ikastaro batzu ere antolatzen ditugu.

Eta zuk?

Irteeratako kartelak egin eta herrian jarri, federatu karnetak ateratzeaz arduratu, egiten diren batzarretan parte hartu...

Zeintzuk dira urtean zehar egiten diren ekintzak?

Batez ere mendi irteerak, eskiatzera joateko irteerak, sagardotegira ere joaten gara, Turroi Eguna egiten dugu Gabonetan, afariren bat ere bai...

Ekintzen bat destakatuko al zenuke?

Eskiatzera egiten diren irteerak dira jende gehien mugitzen duten irteerak. Aurten Sierra Nevadara joango gara Martxoko San Jose zubian.



Luz Ardideneko eski estazioan.



Nola ikusten duzu mendiaren mundua gaur egun? Ez al dago “moda” bat mendiaren inguruan?

Jende pila bat mugitzen da mendian gaur egun, baina gazte jendea ez da gure inguruko mendietan ibiltzen, nahiago dute Pirineotara edo beste mendi batzuetara mugitzea. Hala ere, Euskal Herrian mendia beti egon da modan.

Zaborrak, pistak... zer esan dezakezu gauza haueri buruz mendizale bezala?

Zaborrak adibidez, beti etxera eraman behar dira nire ustez. Mendiko pistak, berriz, beharrezko direnean erabili beharko lirateke bakarrik, ez kapritxo bezala.

Zer eritzi daukazu Elgeako Parke Eolikoari buruz?

Deba Garaiko Mendi Talde guztiak bezala, gue ere ez gaude Parke Eolikoan aurka, baina ez gaude ados Elgekoa egiteko erabili den bidearekin. Parke hau egiteko, Aizkorriko Parke Naturalaren izendapena atzeratu egin da, legedi aldetik arazorik egon ez dadin. Lehendabizi mendia apurtuko dute, gero babeslegea jartzeko. eta hori ez da bidezkoa.

Pikos de Europan



ZE BARRI?

Argitaratzailea: **AXTROKI KULTUR ELKARTEA**
 Erredakzio kontseilua: Iñigo Biain, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez.
 Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia, Asier Errasti.
 Inprimategia: Eguzkigraf, Koop, Elk.
 Tirada: 2.000 ale
 “ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”



Eskoriatzako Udalak diruz lagundutako aldizkaria
 Euskara Batzordea



EUSKAL PRESOEN ETA EUSKARAREN ALDE



Gabon Zaharrean egindako presoen aldeko kontzentrazioa

Eskoriatzan, gainontzeko udalerrietan deitua zegoen bezelaxe, “Euskal Presoak Euskal Herrira, orain!!” lemapean kontzentrazio ixila egin zen gabon zahar egunean. Manifestazioak erantzun ona izan zuen, herritar asko hurbildu zen herriko plazara, presoek eskubideak defendatuz, hauek Euskal Herrira ekar ditzatela eskatzeko. Bestalde, urtarrilaren 9an Bilbon euskal presoek alde egin zen manifestazio arrakastatsura ere jende asko animatu zen Eskoriatzatik.

Ea bada, euskal gizarteak jaurtitako ohiuaren oihartzuna heltzen den, orain arte gai honi entzurgor egin dien horien belarrietara, eta ea, 1999.urte honetan, behingoz presoak Euskal Herriratzen dituzten!

Bai euskarari kanpainaren aldeko giza-katea Abenduaren 24an izan zen, eta esan behar, ekimen honek ere erantzun ona izan zuela, zorionez. Horrela, bai giza-katean parte hartu genuen eskoriatzarrok, eta baita, abenduaren 26an Euskal Herriko estadioetan “Bai euskarari” lemapean ospatu zen makro jaialdian parte hartu genuen guztiok ere, aurrerantzean euskeraren alde gogor egiteko konpromezua hartu genuen. Hala bedi!

Baina, euskal presoena ez zen izan gabonetan Eskoriatzan egin zen aldarrikapen bakarra;

Eskoriatzako haurrek ere izan dute dibertitzeko txokoa gabonetako oporretan. Abenduaren 28, 29 eta 30ean jolas parke bat ezarri zen herriko pilotalekuan dohainik, non, besteak beste: tren “txu-txu”-an, koltxonetatan, rokodromodun txirrista puzgarrian, gaztelu puzgarrian.... saltoka gustora ibili ziren herriko haurrak. Ordutegi malgua izan zuen gainera parkeak, bai goizez eta baita arratsalde zabalik egon baitzen..



Benetan ondo pasatzeko aukera ezinobea izan zutez haurrek

Erregeek ere aurten ez diete hutsik egin Eskoriatzako gazteenei!. Meltxor, Gaspar eta Baltasar zaldiz etorri ziren Eskoriatzara, Jesus haurtxoa eta honen gurasoak, Ama Birjina eta Jose, lagun zituztela. Harrera polita egin zitzairen herrian eta biharamunean eliz ospakizunetan ere izan genituen.

Musika eskolako bandaren “Gabonetako kontzertua”



Urtarrilaren 6an, “Errege Egunean”, umeez erregeek ekarritako opariez kalean jolasten zuten biartean, nagusiagoek, San Pedro parrokiaren Musika Eskolako Bandak eskeinitako kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten. Kontzertu hau gabonetako programazioko azken ekitaldia izan zen eta bertara hurbildu zen jendeak txalo zaparrada artean agurtu zituen herriko musikariak.

OBRAK

Guztiok jakingo duzuen bezala, joan zen urteko Maiatzean hasi ziren Deba ibaia garbitu asmoz sortu nahi den depuradorara ur erresidualak bideratzeko kolektorearen lanak. Hasiera batean interzeptore nagusia egiteko akordioa lortu bazen ere, badirudi azkenik bigarren mailakoak, auzoetan joango direnak ere, eraikiko direla.

Erabaki aldaketa hau jakin berri dugu, izan ere, Eskoriatzako Udaletxeak Dorletan egin asmo duen pasioko lanak aprobetxatuz, berak eraikiko baitu bigarren mailako kolektore hauetako bat. Erabaki hau izan da gainontzekoak ere eraikitzea ahalbidetuko duena.

Bestalde, Udalak darabiltzan bidea hobetzeko lanek ere aurrera darraite, eta dirudienez Maiatzalderako edo amaítuta egongo omen dira.



Bidea konpontzeko lanak Maiatz aldera amaítu nahi dira



Entseietan ere giro aparta bizi izan da

Santa Ageda eguna ere badatorkigu, eta dagoeneko kintuak beren ahotsak prestatzen hasiak dira. Aurten 29 mutilek gozatuko dituzte Otsailaren 3, 4, 5 eta 7 egunak.

Lehen egunean, 3an, herriko bideetan eta bidegurutzetan kokatuko dira, autogidarien borondate ons frogatzeko. Hurrengo egunean baserrietara abiatuko dira bi taldetan banatuta, goiz eta arratsalde arituko direlarik.

Hirugarren egunean, hau da, Otsailaren 5ean, herrian, lantegietan eta ikastetxeetan abesteaz gain, ilunkaran dantza egingo dute herriko enparantzan.


Azkenik, Otsailaren 7an meza izango dute eguerdian, eta dantzaldi eta parranda bikaina arratsaldean. Ez da ahaztu behar egun hauetako bakoitzean bazkari eta afaria izango dutela kintuok.

EUSKALDUNON ESKUBIDEEN GIDA KALEAN DA

Eukal Herrian Euskaraz (EHE) elkarteak euskaldunon eskubideen gida liburuxka argitaratu berri du. Bertan UNESCOk bere garaian Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalean aditzera emandako berezko eskubideak jasotzen dira eta baita tokian tokiko legeek aitortzen dizkigutenak ere. Bizitzaren arlo desberdinetan zeintzu eskubide dauzkagun azaltzen du liburuxkak zehatz mehatz (seinaleak, osasungintza, irakaskuntza, justizia, administrazioa, errejistroa, ...).

Euskaldunon ESKUBideakÓ (horixe baitu izena) duela zenbait urte EKBk argitaratutakoa baino osoagoa da. Zentzu horretan, euskaldun ororentzat, eta batik bat euskaltzaleentzat ezinbesteko tresna dela iruditzen zaigu.

Gutuna jaso dugu hile honetan ere Hego Amerikatik. Eskoriatzako bi neska, Larraitz Uribesalgo eta Maider Erce, Hondurasen ditugu hilabete batzu denetik, Puerto Castilla eta Trujillo hirietan lanean. Gustora daudela idatzi digu Maiderrek, baina oso gogor egiten omen dute lan. Bejondeiela!



Urteko lehen mendi irteera, arrakastatsua

Aurtengo urterako Eskoriatza Kirol Elkarteko Mendi Sailak prestatu duen egutegiari Urtarrilaren 16an, larunbata, eman zitzaion hasiera. Lehenengo hau ski irteera bat izan zen, konkretuki frantsez Pirinioko Cauterets eta Hautacam estazioetara. Hurrengo bi irteerak ere frantsez piriniora izango dira, eta laugarrena Sierra Nevadara, Granadan. Aipatu behar da lau irteera hauek estazio ezberdinetara izango direla, aukera ezberdinak dastatzeko aukera eskeintzen dutelarik.


Larunbatean 80 lagun inguru abiatu ziren, bai autobusez, zein kotxez Cauteretsko estaziora. Estazio honek 23 pista ditu, teleferiko bat, 4 telesila eta 9 arrastre. Kontatu digutenez, elur ugari zegoen pistetan, eta eguraldiak ere nahiko lagundu omen zuen. Jakin ahal izan dugunez, gauen festa ederra ere izan zuten, dantzaldi eta guzti.

Hurrengo egunean Hautacamgo estaziora joan ziren, bestearen aldean txikia, arrastreekin soilik jantzia. Han elurra oso gogorra omen zegoen, eta

hori gutxi balitz, eguerdi aldera eguraldia okertzen hasi eta elurte ederrarekin amaitu zuen. Eskoriatzarrek arazotxoren bat edo beste ere izan zuten bueltako bidaiari abiatu orduko elurra zela eta, baina gauerdiko Eskoriatzan ziren, nekatuta, baina pozik.



Cauterets estazioa.



Kataiak ipintzen Hautacam mendi portuan.

ESKORIATZA K.E.-OTSAILERAKO EGUTEGIA

Otsaila	Ordua	Eguna			
		7	14	21	28
Saskibaloia					
Cadete	16:00	X			X
Jubenila	16:00		X		
2.mailan	17:45	X			X
Futbito					
Jubenila	17:45				
Euskal liga	19:30		X		X



Eskoriatza K. E. saskibaloia cadete taldea

Elgeako Parke Eolikoa: Hamaika korapilo askatzeko

Urte amaierarako Elgeako zentral eolikoaren eraikuntza lanei ekitea eta 1999ko lehen hiru hilabeteetan jada martxan jartzea aurrakusten zen. Baina azken hilabeteotan izan diren hainbat presio sozial eta legezkoek, atzeratu egin dute proiektua ordea, eta oraindik Elgea-Urkilako parke eolikoa gauzatuko denentz zehaztu gabe dago. Etenaldi hau tenore egokia izan bekigu, proiektu honen nondik norakoen azalpena emanaz, berriz ere, guzti honen hausnarketa sakona egiteko.

Zentral eolikoaren proiektua Euskadin

Elgeako parke eolikoa, energia eolikoa Euskadin ezartzeko asmoarekin aurkeztu den makro proiektuaren hasiera baino ez da. *Eólicas de Euskadi* enpresak aurkeztutako proiektuak guztira 26 zentral eoliko aurrakusten ditu Euskal Autonomi Erkidegoan. Guztira, 600 aerosorgailu (40metroko altuera eta 20 metroko zabalerakoak) ezarriko dituzte, zeinei Nafarroan jadanik funtzionatzen dutenak eta eraikitzekotan direnak gehitu behar zaizkien. Guzti honekin EAEn kontsumitzen den energiaren %5 a lortzea espero da.

Energia eolikoaren abantailak.

Gaur egun erabiltzen diren energia berriztagarrien artean, energia eolikoa dago. Ondo erabiliz gero, ingurugiroan kalte gutxi sortzen du eta bere erabilpena asko bultzatu da azken urteetan. Beraren erabilpenarekin, egun dauden energia konbentzionalek eragindako kutsaduraren zati haundi bat ekiditen da. *Eólicas de Euskadi* enpresaren arabera, <<Elgeako parke eolikoari esker EAEn kontsumitzen den argindarraren % 0'5a lortuko genuke eta hau ingurugiroarentzat mesedegarria da, hala nola: urtean 22.000 tona ikatz gutxiago erreko da zentral termikoetan, edoeta 15.000 tona petroleo erretzea sahiestuko da besteak beste. Horrela erregai fosil hauek erretzen ez direnez, hainbat partikula

kutsakor eta CO₂, NO₂ eta SO₂ bezelako gas kaltegarriak eguratsera jaurtitzea ebitatuko da. Gas horiek dira hain zuzen negutegi efekoaren eragile nagusiak>>.

Energia eolikoaren kontsumoak ez du hainbesteko gasturik suposatzen. Gasturik gehien hasieran eskatzen du, energia eolikoa sortzeko eraiki-tzen diren parke eolikoek azpiegitura handia eskatzen bait dute: sub-estazioak, haize errotak, pistak..., eta honek guztiak paisaia nabarmen eraldatzen du. Horregatik, nahiz eta eolikoakj abantaila asko izan, berau ezartzeko guneak ondo aztertu eta aukeratu behar dira, ahal dela, toki industrializatueta edo jadanik hondatuta dagoen ingurune batean. Horrela, parke eoliko batek ingurunean eragiten duen transformazioa ikusita, Europako hainbat herrialdetan autokontsumorako, bost edo sei haizerrotaz osatutako, zentral txikiak ezartzearen aldeko apustua egin da.

Baina Euskal Herrian zentral hauek eraikitzeko *Eólicas de Euskadi* enpresak landu duen plangintzaren arabera, zentral hauek eraikitzeko baldintza egokiak soilik 800metrtik



Kurtzebarri

gora ematen dira, hain zuzen ere, aukeratutako tokiok, Euskal Herrian geratzen zaizkigun zonalde pribilegiatuak dira.

Zentral eolikoak ingurunean izango duen eragina.


"Elgeako parke eolikoari esker kontsumitzen den energiaren %0,5a lortuko da".

Elgeako mendizerran egin nahi den parke eolikoak 37 haize errota izango lituzke eta proiektu hau 12-13km tan luzatzeko asmoa dago, nahiz eta iragan urrian Eusko Jaurlaritzak onartutako dokumentuetan soilik lehenengo zatiari zegokion, hots, hasierako 4,5 kmei.

Guzti honek ingurunearen transformazio itzela ekarriko luke; alde batetik, inguruko herrietatik garbi asko ikusiko baitira haize errota erraldoiak. Bestalde, era horretako zentral batek

arestian aipatu dugun bezela azpiegitura handia eskatzen duelako (sub-estazio elektrikoak, 5 metrotako zabalera duten pistak...). Gainera, kontutan izan behar da, Deba garaiko bailara industrializazioaren ondorioz, azpiegituraz josia dagoela eta Elgeako ingurunea dela industrializatu gabe gelditzen den gune natural bakanenetakoa. Aspektu askotatik begiraturaz da zonalde pribilegiatua.:

Bertako faunari dagokionez, Aitzgainen esaterako, Gipuzkoan dagoen hegazti kolonia inportanteena aurkitzen da (putreak, saizuriak, kabellerak...). Bestalde, udazkenean, usoen pasa lekua ere bada. Landaretzari dagokionez, berriz, garbi dagoena da, zentral eolikoaren inguruan ezingo dela zuhaitzik landatu eta daudenak bota egin beharko direla. Gainera, haize errotaren mugimenduaren ondorioz, ingurunea asko sikatzen da.



Aitzorrotz

Bestalde, aipagarriak dira zonalde honetan dauden aberastasun arkeologikoak (Mugarriluzeko menhirra, mugarr haundi eta beste hainbat elementu megalitiko...), zeinei, aldamenen eraikitzeotan diren haize errota erraldoiek mendeetan gorde duten misterioa kenduko dieten.

Mozio eta aurkako jarrerak

Guzti honek duen garrantzia aintzat hartuz, ugariak izan dira Elgea-Urkila mendizerran ezarri nahi den parke eolikoaren aurka adierazitako kezak, burutu diren ekintzak eta egin diren alegazioak ere. EFM hasieratik egon da proiektu honen, eta etorkizunean egin nahi dituzten beste parke eoliko batzuen kokapenen aurka. Mendi elkarteek ere gogor egin

Euskal Mendizale Federakundea eta mendi elkarteak.

Ingurugiroa jasaten ari den hondemendia kontutan izanik, energia eolikoa bezelako energia berriztagarrien erabilpena bultzatzea ondo ikusten dute mendizaleek. Dena dela, zentral eolikoak eraikitzekeko plangintzaren aurka azaldu dira, plangintza honetan aurrirakosten diren zentralen kokaguneak egokiak ez direla kontsideratuz.

-Deba Garaia dagokionez, bailara erabat industrializatuta dago. Elgea bezelako mendietan gelditzen diren gune naturalak babestu beharrekoak dira, mendiak baitira industrializatu gabe gelditzen zaizkigun gune bakanak.


-Gainera, Zentral eoliko horiekin, kontsumitzen dugun energiaren %5a baino ez da lortuko. **Elgeako kasuan, aurkeztu den proiektuaren arabera %0'5 a baino ez da izango.** Merezki al du gure mendizerra eder hau horrela sakrifikatzeak?.

-Europako beste lurralde batzuetan autokontsumorako zentral txikien aldeko apustua egin da. Hemen zergatik ez?. Zentral eoliko haundien beharra justifikatuko balitz ere, tentu handiz aukeratu beharko liratzeko kokaguneak, ahal dela hondatutako lekuetan (gizartetuak, industrializatuak...).

-Eólicas de Euskadi ren arabera, EAEn soilik 800m.tik gorako lekuetan ematen dira zentral eolikoak ezartzeko baldintzak. Ba, justu zonalde horietan daude EAeko ingurune natural ederrenak ere. Eusko Jaurlaritzak 1992an egin zuen EAeko Garrantzizko Espazio Naturalen katalogoaren arabera, zentral eolikoak kokatzeko aukeratu diren 26 guneetatik 22 babestu beharreko espazio naturalak dira: Arkamo, Elgea, Irugurutzeta, Karakate, Oiz...

-Elgeako mendizerrari dagokionez, 1995eko otsailean onartu zen **Aizkorriko Natur Baliabideak Antolatzekeko Plana** idaztekeko prozedurari ekitea, baina oraindik ez du Parke natural izendapena eta parkearen mugak ere ez dira zehaztu. Zergatik?, Elgean ezarri nahi den zentral eolikoak honetan ere eraginik izan zezake. Izan ere, parke natural izendatuko balitz ezingo litzateke bertan zentral eolikorik eraiki. Bestalde, parke naturalaren mugak zehaztu gabe egotean, zentral eolikoa muga horien barruan eraikitzekeko arriskua sahiesten da.

-Elgean zentrala eraikitzekeko plan honek bederen, ez du zerikusirik ekologiarekin, ez eta ingurugiroaren babesarekin. Izan ere, prozedura guztia presaka egin nahi izan du Eólicas de Euskadikoek. Zentrala errentagarria izango zela baiestatzeke inolako frogarik egin aurretik, datu zehatzik eduki gabe jadanik erabakia zeukaten Elgean zentrala egingo zutela. Guzti honen atzean **interes ekonomikoak** daude. Hamar urte barru liberalizatutako omen da argindar produkzioaren merkatua, eta, beraz, elektrizitate enpresek eta teknologia garatzen dutenek, interes handia dute energiaren monopolioa kontrolatzeko. Gutxi batzuen negozioa baino ez da beraz.



dute proiektuaren aurka. Eta azkenik, EHUko irakasle batzuek ere legez kanpokotzat jo dute proiektu hau.

Kontua da, Eólicas de Euskadi enpresak aurkeztu zuen proiektu honi Eusko Jaurlaritzako ingurugiro Sailak oniritzia eman zion arren, bete beharreko baldintza batzuk ezarri zizkiola eta baldintza horiek aurrikusita zuten gastua baino gehiago egitea eskatzen dutela. Bestalde, aurrera begira eman

beharreko urratsetan ere eragozpenak izan ditu enpresa honek, hala nola: alde batetik, parke eolikoan sortzen den energia bideratu eta transformatzen duen instalazio elektrikoa ezartzeko baimenaren tramiteak atzeratu dira. Eta beste alde batetik, oraindik ez zituzte jaso proiektua gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren hainbat udalerriren baimen guztiak.

Proiektu hau nahikoa aurreratua dagoen arren, oraindik, jada ezagunak ditugun arrazoi horiez gain, beste hamaika korapilo askatzeko daude, eta, beraz, hobe korapilo horiek guztiak askatu artean proiektua geldirik egotea. Agian, horrenbesteko presak ahaztu eta proiektua berrikusi beharko litzateke. Izan ere, kontsumitzen dugun energiaren 0'5^a eskuratzeko ordaindu beharreko prezioa garestia da, eta behin parke eolikoak eraiki ostean, alferrik izango da egindako hutsegiteaz damutzea.



Eskoriatzako udalak ez dio baimenik eman momentuz

Eólicas de Euskadi enpresak Eskoriatzako udaletxeari igorri dio jadanik Parke Eolikoaren proiektua eraikitzen hasteko Lizentzia Eskuera Ofiziala. Baimen hau Parke Eolikoak hartuko dituen lurren jabe diren udalerririk guztiei bidali die Eólicas de Euskadi enpresak eta proiektua eraikitzen hasteko, beharrezkoa du baimenok izatea.

Dena den, Elgeako Parke Eolikoari buruzko Plan Bereziari, Eskoriatzako udalak bere garaian aurkeztu zituen alegazioei Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak eman dituen erantzunak nahikoa ez direla kontsideratuz, Eskoriatzako udalak momentuz ez dio baietzik emango proiektuari, arik eta, zintzilik geratu diren kontu horiek argitu artean.

Eskoriatzako udalak egin zituen alegazioetan lau puntu hauek kontutan izan zituzten eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailari:

1. Etorkizunean Aizkorri Parke Natural izendatzeko aurrikusita dagoen proiektua.
2. Eskoriatza eta Barrundiako udalerririk mugak.
3. Mugarriluzeko menhirretik haize-errotak urruntzea.
4. Parke eolikorako sarrera kontrola.
5. Parke Eolikoak hartuko dituen lurra direla eta, kaltetuta gelditzen diren lurjabe eta udalerririk ordain eta indemnizazioen tratamenduan berdintasuna egotean.

Kontua da, Eskoriatzako udalak egindako alegazio hauek, mugarriluzeko menhirrenak jaso duela baietza soilik, hala nola; Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak egindako Inpaktu

azterketan 1 zenbakia duen haizerrota menhirretik urruntzea eskatu baitzen, gutxienez 60 metroko distantziara.

Bigarren alegazioari dagokionez, azpimarratu beharrekoa da Eólicas de Euskadi enpresak Elgea-Urkila Parke Eolikoaz azaltzen zuten txostenean muga aldatua egoteaz gain, aerosorgailu gehienak Barrundi aldera daudela, nahiz eta mugarriak Eskoriatzan kokatuta egon.

Eusko Jaurlaritzak alegazio honi eman dion erantzuna honakoa izan da: *“Elgeako Parke Eolikoaren Plan Bereziari aurkeztu zenuten alegazioari buruz, esan, Plan Berezi hau ez dela horrelako kontuak definitu eta erabakitzeke tresna eta, Administrazio honek ez du gai horretan erabakitzeke eskumen edo kompetentziarik”*. Beraz, Eskoriatzako udalak gai hauetan eskumena duen erakundean aurkeztu beharko du alegazioa. Kontu hau, proiektua egin ahal izateko argi egon beharko dela adierazi digute udaletxetik. Izan ere, proiektuan agertzen den mugarriaren kokapen horiek indemnizazio, dirulaguntza etb.etan aldatu egingo litzuke.

Bestalde, Eskoriatzako aldean egin beharreko obren aurrekontuak ere Eskoriatzako udala asko arritu du: Eskoriatzako aldean 37.689.748 pezeta gastatzea aurrikusten da. Dena de, udalari nahiko kopuru harrigarria iruditu zaio, kontutan izanik aurrekontu osoa 3.493.365.324 pezetarainkoa dela. Arrazoi asko ditu, beraz, gure udalak Elgeako proiektuaz kezkatuta egoteko. Horregatik, kontu honetan aurrerantzean ere zuhurtasunez jokatu du eta erabakirenbat hartu aurretik, erabaki hau ondo aztertu beharko du.

NEPAL

Ez ahazteko bezalako Olentzeroa

Garikoitz Kortazar Ze BARRIKO gure lankideak etxetik urrun pasa ditu Gabonak aurten, Himalaya aldean, Nepalen konkretuki. Nor bera baino hobeto beraz, berriztu berri dugun gure aldizkarian hemendik aurrera izango dugun tarte berri hau estreinatzeko? Orrialde hauetatik, gure herritik ihes egin eta munduko edozein txokotara hurbilduko gara, atzerrian ibilitako eskoriatzarrek izandako bizipenak gerturatzeko asmotan.

Oraindik bueltatu nintzenetik bi aste baino gehiago pasa ez direnean, atzera begiratu eta Gabon hauetan zehar egin dudana bidaiari buruz hitzegin edo idaztea, izugarri zaila egiten zait.

itogarria egin zitzaidan haseran; jendetza izugarria, autoak, zarata, kea, sosena bat lortu nahian



Karma, nire mendiko gia Ganesh Himal mendietan hegan



Porteatzaile talde bat bazkaria prestatzen

Jendeak kalean ikusi eta "Joño Gari, zer moduz Nepalen?" galdetzen dit beti. "Oso ondo, flipatzen" erantzuten dut nik; bain azaila da oso bost minututan, bost astetan zehar, seguraski munduan den lekuri izugarrienetako batetan bizi izan ditudan oporrei buruz zerbait zuzen esatea. Denbora hortan zehar izan dudana lasaitasunaren brintzatxo bat nahiko nuke, daukadan lagun bakoitzari, Nepalen, txikitatik liluratu nauen erreinuan, aurkitzea espero nuena aurkitu dudala esateko.

Abenduaren 10ean Kathmanduko aireportura heldu nintzenetik, kolore, soinu, jende eta sentsazioek begiak betetzerarte txunditu ninduten. Hiria

n i n t z e n Kathmandun, jatetxe batean ezagutu nuen gazte baten laguntzaz, bertako txoko interesgarrienetako batzuk ezagutzea lortu nuen arren.

Nire motxilan neraman trekkin gidako sarreran hauxe irakurri nuen: "Nepalen trekkin bat egitea, mendian oporrak

egiteko era berezi bat da. Nepal kultura eta ohitura aniztasun handiko erreinu bat da, herri berezi eta jende adeitsuz betea. Badirudi, bertan beste inun baino garrantzi gehiago hartzen dutela, gure garapenaren lasterketan galdu ditugun bizitzaren aspektuak." Lantan eta Helambuko bailaratan eta Khumbuko zonaldean egin ditudan bi ibilaldiek, elektrairdarrik gabe, ur eta osasun zerbitzurik gabe, eta bizitzeko egon daitekeen lekuri gogorrean, irribarrea inoiz galdu gabe bizi den herri bat ezagutzen lagundu didate. Umea nintzenetik, Martin Zabaleta eta Pasang Tembak Everesten, Azpeitiarrak Annapurnan, eta beranduago beste hainbat mendigoizalek egindako



Jendea antzerki bat ikusten Kathmanduko Durbar Squarren



Ume nepaldarrak etxeko lanak egiten.

balentriek lilura sortu izan dute nigan. Baina nire helburua ez da inoiz tontor elurtu eta haizez beteak zapaltzea; adosago nago Sarasua anaien ikuspuntuarekin:

*“Kutizigune bihurtu ohi du
gizonak leku ederra.
Gure mendira ere sartu zen
Azal zuri, begi fierra
Konkistarako abila bezain
Otoitzerako alferra
Mendi magala bihurtuz bere
Irrikatoki ankerra
Sokaz ta burniz prantatu zuen
Gailurren kontrako gerra.”*

Mendi tontorrek jainkoen bizileku dira nepaldarrentzat. Shiva, Everesteko tontorrean ez bada, Gosainkundako laku izoztuaren urpean dago lo, Parvati bere emaztearekin. Orain, Yeti jainkoa bera ere ez da agertzen mendietan, helikopteroek izutu egiten bait dute.



Everest, Lhotse eta Nuptse Kala Pattarretik ikusita

Hori da oportretan joaten garenok uzten dugun ondarea.

Hala ere, bai Nepalen eta beste edozein lekutan ere, nekazariaren, artzainaren edo erropak ke usainez eta errautsez zikinduta dituen porteatzailearen ondoan eseri eta entzutea de herri

izotza denaren jabe egiten den bitartean, te bero batez lagunduta sukaldeko epelean egon ezker?

Khumbuko trekinean, berriz, gauzak aldatu egiten dira. Milaka dira urtero urtero Everesteko kanpo basera hurbiltzen diren “mendizaleak”. Beraien ondorioz, kutsadura, deforestazioa, kulturaren galera eta explotazioa nabariak dira bailara honetan. Hala ere, bidea jarraituz Nepalgo bailaratan zehar ibili, eta munduko mendirik altu eta ederrenetako batzu (Everest, Lhotse, Nuptse, Pumori eta Ama Dablam) begi

h o n e n aberastasunera heltzeko bidea. Gauero gauero, nire lagun hegoafrikar, belgiar, edo singapurtarrak niretzako onegia zen ingeles batean hitzegiten zuten bitartean, ni ostatuko sukaldera sartu eta bertakoekin hitzegiten saiatzen nintzen. Haseran arraro egiten zitzaieni ni horrela hurbiltzea, baina irrifarreak laister agertzen ziren beraien ezpainetan, askotan liburuetan irakurritako istorioak errepikatzen zizkidaten, baina, nola eman ezezkoa horri, gauen, kanpoan



Asier, Leire eta Karmarekin Kala Pattarren (Everesteko Kanpo Basean) 5700m

aurrean izatea izugarritzko esperientzia izan da niretzat, eta baita asier eta Leirerentzat ere.

17 egunetan egin genuen ibilaldia, eta hilaren 7an bueltan ginen Kathmandun. Urtarrilaren 14a bitartean bertan egon nintzen, hilabete lehenago ezagutu nuen hiriaz gozaten; kaosa eta zarataren erdian, lasaitasunerako eta deskantsurako ideala bihurtu zen Kathmandu. Eta hegazkina hartu eta hona heldu ondoren, Asiako txoko hartan ezagututako jende eta izandako esperientziak behin eta berriz datorkit burura. Aurtengo gabonak nire bizitzako arraro eta berezienak izan dira, baina Olentzerok eman didan oparia urte askotan gordeko dut gogoan.

Garikoitz Kortazar

GURE BERBETAN

HISTORIXA LEZINO BAT

Beti esan izen dot gerra bateko bataila leku batera bisita bat eittia ona ero txarra izen leikiela, segun zeinek erutezauen bertara eta zelako asmuaz zoiezen. Eta demagojia patriotero merkia alde batera itxitta, personien kondizina argittasun besteko iluntasunaz beteta dauelako, holako tokixak gaztienendako tolerantzia eskola ederriren konbertiruko litzake. Europa eta Ameriketako beste leku batzuetan horreik toki historikuok errekorrituten neskatalamutikuak ikusi leikezen moruen, tristia da Euskal Herriren beste horrenbeste ez eittia. Hemen, gure historixiaz lotsatu gaittezen konsegiru daue sotaniaz, txarretarakin, Parlamentuen eskainua, ero Tronuko Saloia Palaziuen eukien oportunistak batzuk, euren manipulazio eta guzurrakin. Val de Junquera, Matxinada, oinazino eta ganboinuak ero Gernika, Intxorta eta Asentsiomendi moruko izenak paisaje normalak baino ezte ahaztutako ehundaka izenen onduen. Han hildakuek, betebiherrak, ideal baten izenien ero, sinplemente, beste erreimeioik ez eukielako, eta beste inun ezin zielako egon, galduittugun lezinuak itxiskuen, batzuetan ederrak, beti ikaragarriak.

Eta hau da nire keja: gure memorixia ezebezeroa kondentetan doula. Esate baterako, Eskoitzan bertan, zenbatek dakixe, ero dakigu, Arlabanen sasoi diferentietan, fan zan gizaldixen bataila bi oso inportantiak egon ziela? Ba bai. 1811. urtien, frantsesen kontrako independentzia gerran, Arlabango sorpresia moruen ezaguna dana izen zan. 1811. urteko Maietza 21en Espoz-Minak jakin euen Esteilan, 25ien kolumna inddartsu batek urten biheuela Frantziarutz preso mordo batekin eta botin ederraz. Infanteixa dana alkartu, batailoetan banatu, eta bide luze eta neketsuetatik bialdu zittuen Arlabanera, atentzinua ez eixien deittu. Egun bi bidien pasau ondoren azkenien konsegiru euien naparrak puerto inguruko arboletara ailegetia. Frantsesak parera ailegau zienien, nappar boluntaixuak deskarga itxi bat bota ei euien, ta, segittuen, baionetan asaltua, frantsesen artien konfusino eta desorden haundixa sortuixaz. Gauza inportantiakin betetako ehun ta berretahamar gurdi hartu eta mila preso baino gehixau ein ei zien. Naparruako dibisinoko komanadante jeneral ein ei euien Espoz. Bi

urte geruau, eszenaixo bardinien, ostera Deslandes jeneral frantsesai emun ei jakon egurra.

1836.ien barrez, Arlabango bataila moruen ezaguna dana izen zan. Arlaban inguruen, Egiagatik aindduta euzen karlistak, eta liuru dibisinok formetaeuien liberalak: Esparteron dibisino espainola, Bernellen lejino frantsesa, eta Evansen lejino inglesa. Euskaldunak Gebara, Arlaban eta Bilarrriel okupetazittuen. Honeik Villarreal jeneralen aginduetara euzen bi batailoi bizkaitar eta lau arabar, eta Goñi brigadierrahatik ainddutako bi batailoi nappar, lau konpainia eta eskadroi bateatik formata euzen. Burrukia Eneruak 16 xen hasi ei zan eta 17ra arte luzatu ei zan eta erozeinek irabazi hal izen ei euen. Alde bixetakuak erretirau ei zien, karlistak bentajia baeukien be.

Egiak Eskoitzan akanpau ei euen, liberalen jenerala zan Córdoba, barrez, Ullibarri-Ganboan. Ondio 19 xen burrukan bat egon ei zan Villarreal eta Evansen mutilen artien, baina azkenien inglesak anka ein biher izen ei euien.

Beste ejemplo batzue badaz. Eta jeneralien, hori da Euskal Herriko failuetaiko bat, eztauela bere historixia ezauketan, ez honeik bakarrik, hemen aittauittuten ejemplo txikinok, historixia jenerala be ezta ezauketan. Eta hola konsegiruten dou gaiza bakarra da ez jakittia nora goiezen, eztagikulako nundik gatozen eta ze bide dakagun. Holako lekuetan neskatala-mutikuak jakin hal izen bihelaukie gerrak erregiak eta gobernantiak deklarataittuela, baina herrixak sufriruteittuela, eta hildakuen hazur gainien konstruiruteittuela euren negozio politikuak, txorimalo, fatxa merke, eta patriota ago zabalak. Baina, hala ta be, beti batzuk irabazten badaue be, eta danak igoyal jarraiketana badau be, batzuetan zutittu eta burrukan eittia baino beste erreimeioik ezta geraketan be ikesten daue. Ez ezer inponiruteko asmuaz, ezta irabaztekuaz be. Beste ze eitteko barik, inok ezinddauela idea bat, ames bat, ero jaixo zaren lurra zapaldu demostretahatipaino.


D.M.III.na.

P.D: Atxabaltagandik liberau gitzen eguna Eneruak 30ekua da. Urte asko be ezte Aihuntamentuen fetxa hontan Eskoitzako banderia altzau euiena. Zeatik eutsi ez horri tradizinuorri?

GOMENDIOA

Hona hemen **Apocalyptica** finlandiarren bigarren CD harrigarria. Lehena 1996an atera zuten, osoki **Metallica** amerikarren bertsioz osatuta. Bertsioak?, galdetuko du batek baino gehiagok. Bai, bertsioak, baina oso bereziak. Izan ere, Max Lilja, Antero Manninen, Paavo Lπtjπnen eta Eicca Toppinen gazteak biolontxelo bana eskutan dutela ausartzen bait dira lehen CD honetan, "Metallica by four cellos" izenekoan, talde amerikarraren abesti goibel eta itogarriekin.

1998an atera dute eskuartean dudan bigarren lana, "Inquisition Symphony". Oraingoan ere Metal gogorrenarekin ausartu dira celloak erabiliz. Honela, **Metallicaren** lau moldaketa entzun daitezke (*For whom the bell tolls*, *Nothing else matters*, *Fade to black* eta *One*), **Sepultura**



brasilardaren bi (*Refuse/Resist* eta *Inquisition symphony*), **Panteraren** bat (*Domination*), **Faith No More** haundien beste bat (*From out to nowhere*), eta azkenik, eta opari ezinobe bezala, Apocalyptica beraien hiru konposaketa.

Beti esan izan da edozein heavyren barruan musika klasikoaren maitale ezkutu bat dagoela. Ba hementxe duzu horren adibide ezinobe. Musika astuna, itogarria une askotan, baina benetan goxoa beste batzuetan (entzun bestela *Nothing else matters* ezinobearen sortzen den atmosfera). Musika gogorrena entzuteko beste euskarri bat eskeintzen digute lau finlandiar hauek, eta nire uste apalean benetan entzungarria gertatzen dela. Hori bai, ez da batere gomendagarria

azkenorduko diskoteketan jartzeko.

BEHARREZKO**TELEFONOAK****Eskoriatza**

Udaletxea 943-714407
 Udal Bulegoak 943-714532
 Udaltzaingoa 943-714407
 Euskaltegia 943-792168
 Kultur-Etxea 943-714688
 Gizarte-Laguntzailea 943-714688
 Kiroletxea 943-715328
 Liburutegia 943-714688
 Luis Eceiza 943-714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
 Almen 943-714964
 Museo-Eskola 943-714688
 Ze Barri? 943-714077
 Talde Antimilitarista 943-715028
 Irakasle Eskola 943-714157
 Osakidetza 943-714452
 Telesko 943-714917
 Taxia 943-714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
 Renfe (Zumarraga) 943-721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 902 101 210
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 112

ALMEN ikastolaren bilera,**Otsailaren 2an**

Almen ikastolak Lehen Hezkuntzako bilera egingo du, aurten, 6 urte bete edo Lehen Hezkuntzako lehenengo kurtsuan matrikulatu behar duten umeen guraso guztiei zuzenduta. Euskarazko bilera arratsaldeko 17:45tan izango da. Gaztelarazkoa, berriz, 19:00etan.

ALMEN ikastolaren bilera,**Otsailaren 4an**

Almen ikastolak Derrigorrezko Bigaren Hezkuntzako bilera egingo du, aurten 12 urte beteko dituzten edo DBHko lehenengo kurtsuan hasiko diren neska-mutilen guraso guztiei zuzenduta. Ordua arratsaldeko 18:30etan, Almen ikastolan.

LANA

* Ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkgaiaren zerrenden irekialdia Gipuzkoako Lanbide Heziketarako, frantsesa, grekoa, musika, gorputz hezkuntza, teknologia, metaleko praktikak, eta beste hainbat arlotarako. Epea: otsailak 5.

* Aretxabaletako Udalak liburutegi laguntzaile bat behar du. Epea: EAOan argitaratu zain geratzen da.

LEHIAKETAK

* 1999ko martxoak 8ko III. Kartel lehiaketa, Arrasateko Emakume Sailak antolatuta. "Martxoak 8: demokrazia ere emakumeontzat" lema harturik, teknika librean egin ahal izango dira lanak. Epea: otsailak 10.

* Arrasateko Hies Ekimenaren eskutik, komiki lehiaketa, "Déjate echar un lazo" lemapean. Lanak zuri beltzean, 2-4 orriko luzeran eta DIN A-4 edo DIN A-3 an aurkeztu behar dira, gaitzat VIH/HIESa edo Sexu Segurua harturik. Epea: martxoak 1.

ADIERAZPEN IKASTAROA

* Adierazpen eskolak antolatuta, adierazpen plastikoa, gaubelak sortzea, haurrentzako dantzak, pentsamendu sortzailearen garapena eta eskolatik kanpo tailer artistikoei buruzko ikastaroak.

GAZTE IKASTAROA

* Euskal dantzak: 10-14 urte artekoei zuzendutako ikastaroa. Asteazkenetan, 6.30etatik 7.30etara "Lore Gazteak"en lokalean. Matrikula 1000 pta.

* Txalaparta: otsailaren 12tik aurrera, ostiraletan arratsaldeko 8etan eta larunbatetan goizeko 10etan. Matrikula 2000 pta.

* Alboka: larunbata goizean Arrasate Musikalen, San Juanak arte burutuko da ikastaroa. Matrikula 3000 pta/2000 pta ikasle eta langabetuentzat.

MENDI IRTEERAK

* Otsailaren 6 eta 7an eskiatzeko irteera izango da Bareges eta Gavarnie eski pistetara.

* Otsailaren 27 eta 28an berriz izango da eskiatzeko aukera, oraingo honetan Luz Ardiden aldera.

GAZTETXOEN MENDI IRTEERAK

* Otsailaren 21ean Apotza-Untzila-Murugain ibilbidea osatuko da.

SANTA AGEDA OSPAKIZUNAK

* Otsaieko 3, 4, 5 eta 7 egunetan Eskoriatzako kintoak kalera aterako dira urtero bezala.

IHAUTERIAK

* Herriko hainbat elkartet antolatuta, zenbait ekitaldi izango dira ihauteriaren inguruan hilaren 11, 13 eta 16 egunetan.

INTSUMISO EGUNA

* Aurten ere, urtero bezala, ihauteriek utzitako ajeari intsumisoek emango diete erantzuna Otsailaren 20an. larunbata.

1999ko Leintz bailarako gida kalean

* Arrasate Komunikabideak taldeko kideek kaleratu dute dagoeneko aurtengo bailarako gida

IHAUTERIAK 99

Otsailak 11, osteguna

Goizean goiz: Ikastetxeetako umeen kalejira, Urdelardero eguna ospatu eta Ihauteriei hasiera emateko.

Eguerdiko 12etan: Kalejira amaitzeko plazan txistor goxo-goxoa denontzat. Arratsaldeko 4,45etan: "Kiki, koko, moko eta flax" pailasoekin umeentzako jaialdia plazan. (eguraldi txarra eginez gero, frontoian izango da)

Horren ondoren: Txokolatada ederra (bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du)

Otsailak 13, larunbata

Arratsaldeko 7.30etan: Eskoriatzako "Trikitixa Eskola"ko trikitilariekin kalejira

Arratsaldeko 8 etan: Mozorro lehiaketa
14 urtetik gorakoentzat
Izen ematea: plazan, 15 minutu lehenago
Sariak: Banakakoa: 15.000 pta.
Taldekoko: 25.000 pta.

Gaueko 10.30 etan: "Gau-bela" taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

Otsailak 16, asteartea

Arratsaldeko 5 etan: Kukumarroen irteera Kultur-etxetik

Arratsaldeko 6 etan: Eskoriatzako bandarekin mozorrotuen kalejira.

Arratsaldeko 7 etan: "Herri Ihauteria"

(Ihauterietako dantza ikasi nahi duzuenok otsailaren 15an arratsaldeko 7etan frontoian izango duzue aukera. Animatu zaitezte!)

Mozorro lehiaketa: 14 urtetik beherakoentzat

Ez da aurretik izena eman behar, epaimahaiak kalejiran doazen umeen artean aukeratuko ditu irabazleak.

Sariak: Banakakoa: 4.000 pezetako balea

Taldeakoa: partehartzaileendako askaria

Sariok "Herri ihauteria" bukatu ondoren emango dira.

INTSUMISO EGUNA 1999

Otsailaren 20an laugarren Intsumiso Eguna ospatuko da. Goizean, etxafleroen danbatekoarekin batera, zarata eta poteo intsumisoari ekingo diogu, trikitiaren soinuak lagunduta. Giroa txikitoekin berotuta, bazkalordura helduko gara. Bazkaltzako babak, noski, bertsolariak postrea jarriko dutelarik.

Arratsaldean, bazkalondoko galbana kentzeko, berriz poteoa. Eta gauerako musika taldeak, oraindik zahaztu gabeak, baina zalantzarik gabe, urteroko mailari eutsiko dietenak.



Iazko Intsumiso eguna bikain joan zen, baina ziur gaude aurtengoa ere ez dela atzera geldituko. Anima gaitzen guztiok!



Antolatzaileak:
Luis Eceiza Ikastetxea
Luis Eceiza Guraso Elkarte
Jose Arana-Almen Ikastola
Jose Arana-Almen Guraso Elkarte
Amuska
Trikitilari Eskola
Musika Eskola
Musika Eskolako Banda
Gorosarri Dantza Taldea
Gorosarri Abesbatza
Itxaropena
Museo-Eskola
Tabernarien Elkarte

Duela 40 urte San Ferminetan



Argazkiko kuadrila honek itxura xeberia dauken arren, ez pentsau karnabalak zienik. 40 bat urte dala, San ferminetik ziela eta, Iruñeko kaleetan ateratako argazkia da honakua. Ezin izan dogu argitu berakatzak hamarretakua egiteko zien, edo San Ferminetako gabetan ibili ohi diran banpiruak uxatzeko. Izan be, seguru gagoz orain dala 40 urte be gaupasero mordoxka bat ibiliko zela Iruñako kalietan.

Goiko aldean: **Jesus Agiriano**, **Miguel Oyanguren** (Altzartekua), **Pantaleon** (Motzena), **Julian Oyanguren** (Subistekua). Behean: **Bixente Iregui** (Santa Luciakua) eta **Julian Zubia** (Erañaldekoa).

KALEKO IRITZIA

Herria hankaz gora dago. Zer duzu esatekorik honen inguruan? Ba al duzu kexarik? Uste duzu pena mereziko duela?

Eskoriatzak aurpegia berritu nahi du. Horretarako Udalak lan batzuei ekin zien Maiatz inguruan. Orain beste lan batzuekin egin dute bat: ur zikinen kanalizaziorako kolektorearen lanekin. Kontuak kontu, herriko erdiko kalea hankaz gora jarri dute, eta dendariekin hitzegin nahi izan dugu (Nahiz eta guztiak dendariak ez izan), ea beraiek nola ikusten duten gai hau.



Mari Carmen Viteri

Nik mereziko duela espero dut, nahiz eta egoera hau oso atsegina ez izan. Batzutan galdetzen dogu azkarrago ezin ote dan egin, baina uste dot ahal duten dana egiten dutela.



Carmen Pagaldai

Ulertzen dogu egin biharreko gauzak direla, eta nik neuk ez daukat kejarik. Gero hobeto geldituko bada, oso ondo. Bitartian, uste dot langiliek ahalegin dana jartzen dutela: potzuak bete...



Arantxa Ruiz

Aurretik ibilitako beste lan batzuetan baino mugimendu gehiago ikusten da behintzat. Guk azkarrago joatea nahiko genuke, batek baino gehiagok egunkaria hemen erosteari utzi baitio, baina agian ezingo da. Nik uste gerora pena mereziko duela.



Felisa Oruna

Guri kalte handia egiten digute lan hauek (eskaparatea,..). Gainera, nahiko jende gutxi ikusten da hemen lanian, eta poliki doa oso. Beharrezkoa izango da, baina horrelako gauzak hasi eta bukatu egin behar dira ahalik eta azkarren.



Ion Encina

Pena mereziko duela uste dut, baina hala ere, nahiko poliki ari direla uste dut. Kostatzen zaie...

HEZIBIDE

ren
aldeko jokoa
errenta segurua



HEZIBIDE
HEZKUNTZA TALDEA

BILERA INFORMATIBOAK:

- **Haur Hezkuntza** (Arrasaten):
(Lau ikastolentzako bilera bakarra)
- **Lehen Hezkuntza (L.H.):**
San Frantzisko Xabier: 99-I-28
Almen: 99- II-2
San Viator: 99-II-9
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.):**
San Viator: 99-II-3
Almen: 99-II-4
- **Martirikutzako Xabierik** 99-II-10
Otsailaren 1etik 12ra.

● Haur Hezkuntza

JOSE ARANA
ALMEN



Tel: 943 71 44 86

ARRASATEKO BULEGOA:

Biteri Etorbidea, 15 behea
Tel: 943 79 88 75
20500 ARRASATE
GIPUZKOA



HEZIBIDE
HEZKUNTZA TALDEA